

EBAZPENA, 2016ko otsailaren 9koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle eta Ikertzaileen Banakako Ordainsari Osagarrien Bikaintasuna ebaluatzeko batzordearen kideak izendatzea xedatzen duena, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen osagarri gehigarriak ebaluatzeko eta esleitzeko protokoloak xedatzen duenari jarraiki.

2012/13 Legean, 8.3.d) artikulua xedatzen duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ondoren zehazten dira Bikaintasuna ebaluatzeko Batzordearen kideak:

Batzarburua: María Luz Morán Calvo-Sotelo.

Kideak: Concepción Iribar Ibabe, Juan Ramón Cuadrado-Roura, Juana Mayo Nuñez, Beatriz Arizaga Bolumburu.

Idazkaria: Manuel Hernandez Cordoba.

Bigarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 9a.

EVA FERREIRA

Unibasq-eko zuzendaria,